

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE**Programa:** 336701 ZAHARBERRIKUNTZA**Programa:** 336701 RESTAURACIÓN**PROGRAMAREN MEMORIA****MEMORIA DEL PROGRAMA****I. MEMORIA**

Zaharberrikuntza Zerbitzuaren eginkizuna da Arabako Lurralde Historikoaren eta Trebiñuko enklabearen ondareko kultura ondasunen iraupena, babesa eta balioztatzea bermatzea, haien ikerkuntza, zaintza eta zaharberrikuntzaren bidez.

Gure lege esparrua maiatzaren 9ko 6/2019 Legea da, Euskal Kultura Ondarearena, hauxe ezartzen duena: “foru erakundeei dagokie euskal kultura ondarea kontserbatzeko, hobetzeko eta zaharberritzeko edo, hala badagokio, indusketa lanak egiteko emandako arauak garatzea eta gauzatzea”

Jarduketa guztiak nazioartean onartutako irizpide eta arauak gidatzen dituzte, eta metodologia zientifiko zorrotza erabiltzen da: obren azterketan sakontzen da, tratamenduak eta ezagutzak eguneratu egiten dira eta ikerketa proiektuetan eta lan talde espezializatuetan parte hartzen da.

Bestalde, lehentasuna ematen diogu kontserbazio prebentiboari zuzeneko esku hartzearen aurretik, arazoen jatorrian jokatzeko eta ondare zaharberritua mantentzeko planak sustatuz.

Hona hemen gura jardun lerroak:

- Ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea.
- Kontserbatzeari eta zaharberritzeari buruzko aholkularitza.
- Kontserbazioa eta zaharberritzea zabaltzea.
- Kontserbazioari eta zaharberritzeari buruzko prestakuntza.
- Erakundeen arteko lankidetzak.

I. MEMORIA

El Servicio de Restauración tiene la misión de garantizar la pervivencia, protección y puesta en valor de los Bienes Culturales que conforman el Patrimonio del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño a través de su estudio, conservación y restauración.

Nuestro marco legal es la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco en el cual se establece que “corresponde a las instituciones forales el desarrollo normativo y ejecución de la conservación, mejora, restauración o, en su caso, excavación del patrimonio cultural vasco”

Todas las actuaciones se rigen por criterios y normas aceptadas internacionalmente y se trabaja con una metodología científica y exigente, profundizando en el estudio de las obras, actualizando los tratamientos y conocimientos y participando en proyectos de investigación y en grupos de trabajos especializados.

Así mismo, damos prioridad a la conservación preventiva frente a la intervención directa, actuando en el origen de los problemas y fomentando los planes de mantenimiento del patrimonio restaurado.

Nuestras líneas de actuación son:

- Conservación y Restauración de Patrimonio
- Asesoramiento en Conservación y Restauración.
- Difusión de la Conservación y Restauración.
- Formación sobre Conservación y Restauración.
- Colaboración institucional.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336701 ZAHARBERRIKUNTZA

1. HELBURUA:

Arabako Lurralde Historikoaren ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea

2025ean, Zaharberrikuntza Zerbitzuak jarduera sendo eta orekatua izan du zuzeneko esku-hartzean, prebentziozko kontserbazioan eta aholkularitza teknikoan, eta, hala, Arabako Foru Aldundiak eta lotutako beste instituzio batzuek kudeatzen duten kultura ondarea behar bezala kontserbatzen dela bermatu du.

Hauak izan dira jarduketak garrantzitsuenak:

- **Foru titulartasuneko kultura ondasunak kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzeak**, ondare arkeologikoa, historiko-artistikoa, obra garaikideak eta ondare bibliografikoa barne. Aipatzekoa da Goyaren Gerraren hondamendiak eta Tauromakia grabatu multzoen zaharberritze osoa, aurrerapen nabarmena baita ondare balio handiko funtsen zaintzan.
- **Obren maileguen eta mugimenduen kudeaketa teknikoak**, manipulaziorako eta garraiorako baldintzak ezin hobeak direla ziurtatuta; horrela, bildumen proiektzio publikoa indartu eta haien osotasuna bermatzen da.
- **Hitzarmena Gasteizko Gotzaindegiaekin**. Horren bidez, ikuskapen eskaerei erantzun zaie eta hainbat esku-hartze kudeatu dira (adibidez, Argoteko erretaula kolapsatua berreskuratzea). Hala, instituzioen arteko lankidetzak eta erlijio ondarearen babesa indartu dira.
- **Prebentziozko kontserbazio estrategiak garatzea**, hau da, aldian behin ikuskapenak egitea, klima monitorizatzea eta museoetan, elizetan eta ondare biltegietan kontrol sistemak zabaltzea. Zunda berriak instalatuta, hobeto egin daiteke jarraipena eta hobeto aurreikus daitezke arriskuak.

Inpaktu handiko jarduketak dira, hobekuntzak prebentziozko kontserbazioan eta kudeaketa tekniko sendoa, Arabako ondarearen babesa indartzen duena.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336701 RESTAURACIÓN

OBJETIVO 1:

Conservar y restaurar el patrimonio del Territorio Histórico de Álava

Durante 2025 el Servicio de Restauración ha consolidado una actividad intensa y equilibrada entre intervención directa, conservación preventiva y asesoramiento técnico, garantizando la adecuada preservación del patrimonio cultural gestionado por la Diputación Foral de Álava y otras instituciones vinculadas.

Las actuaciones más relevantes han sido:

- **Intervenciones de conservación y restauración en bienes culturales de titularidad foral**, incluyendo patrimonio arqueológico, histórico-artístico, obra contemporánea y patrimonio bibliográfico. Destaca la restauración integral de las series de grabados de Goya *Desastres de la Guerra* y *Tauromaquia*, que supone un avance significativo en la preservación de fondos de alto valor patrimonial.
- **Gestión técnica de préstamos y movimientos de obras**, asegurando condiciones óptimas de manipulación y transporte, lo que refuerza la proyección pública de las colecciones y garantiza su integridad.
- **Convenio con el Obispado de Vitoria**, mediante el cual se han atendido solicitudes de revisión y se han gestionado intervenciones como la recuperación del retablo colapsado de Argote, reforzando la colaboración institucional y la protección del patrimonio religioso.
- **Desarrollo de estrategias de conservación preventiva**, con revisiones periódicas, monitorización climática y ampliación de sistemas de control en museos, iglesias y almacenes patrimoniales. La instalación de nuevas sondas supone una mejora en la capacidad de seguimiento y anticipación de riesgos.

Son actuaciones de alto impacto, mejoras en conservación preventiva y una gestión técnica sólida que refuerza la protección del patrimonio alavés.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336701 ZAHARBERRIKUNTZA

2. HELBURUA:

Ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea sustatzea

Toki erakundeentzako laguntzen deialdiari esker, esku-hartze garrantzitsuak bultzatu ahal izan dira lurraldeko ondasun historiko-artistikoetan. Zuzenean laguntzen da udal ondarea hobetzen, eta erakundeek ondarea zaintzeko duten erantzunkidetasuna indartzen da.

Jarduketa esanguratsuak finantzatu dira eskultura, erretaula, estalduren azterketa eta dokumentu funtsetan, eta lehenetsia eman zaie esku hartzeko premia handiagoa eta tokiko ondarearen kontserbazioan eragin handiagoa duten proiektuei.

Deialdiarekin agortu egin da erabilgarri zegoen partida, eta horrek agerian uzten du eskari iraunkorra dagoela eta programa baliagarria dela udalerriei laguntzeko tresna gisa.

3. HELBURUA:

Aholkularitza teknikoak eskaintzea ondarea behar bezala kontserbatzeko eta zaharberritzeko

Aholkularitza teknikoak zerbitzuaren funtzio estrategikoetako bat izaten jarraitzen du, bai aldundiko beste zerbitzu batzuentzat, bai kanpoko erakundeentzat. Aholkularitza ugari eta askotarikoa ematen duenez, zerbitzua erreferentea da kultura ondarearen kontserbazio eta zaharberritzean.

Hauek izan dira jarduketa aipagarrienak:

- **Lankidetzeta estua Historia eta Arkitektura Ondarearen, Museoen eta Arkeologiaren Zerbitzuekin**, txosten teknikoaren eta esku-hartzearen gainbegiratzearen bidez. Nabarmentzekoa da Natura Ondarearen Zerbitzuarekin elkarlanean egindako esku-hartzea, non Valderejoko Riberako Done Eztebe elizako horma pinturak berreskuratu baitira; izan ere, sailen arteko koordinazioaren adibide da.
- **Erakunde publikoei, fundazioei, unibertsitateei eta herritarrei aholkularitza espezializatua ematea**, Arabatik eta Trebiñutik ez ezik, beste probintzia batzuetatik ere iritsi diren eskaerekin.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336701 RESTAURACIÓN

OBJETIVO 2:

Fomentar la conservación y restauración del patrimonio

La convocatoria de ayudas dirigida a entidades locales ha permitido impulsar intervenciones relevantes en bienes histórico-artísticos del territorio. Se contribuye de manera directa a la mejora del patrimonio municipal y reforzando la corresponsabilidad institucional en su conservación.

Se han financiado actuaciones significativas en esculturas, retablos, estudios de revestimientos y fondos documentales, priorizando proyectos con mayor necesidad de intervención y mayor impacto en la conservación del patrimonio local.

La convocatoria ha agotado la partida disponible, lo que evidencia una demanda sostenida y la utilidad del programa como herramienta de apoyo a los municipios.

OBJETIVO 3:

Ofrecer asesoramiento técnico para la adecuada conservación y restauración del patrimonio

El asesoramiento técnico continúa siendo una de las funciones estratégicas del Servicio, tanto para otros servicios de la Diputación como para entidades externas. El volumen y diversidad de asesoramientos consolidan al Servicio como referente técnico en conservación y restauración del patrimonio cultural.

Las actuaciones más destacadas han sido:

- **Colaboración estrecha con los Servicios de Patrimonio Histórico Arquitectónico, Museos y Arqueología**, mediante informes técnicos y supervisión de intervenciones. Destaca la colaboración e intervención conjunta con el Servicio de Patrimonio Natural en la recuperación de las pinturas murales de San Esteban de Ribera de Valderejo, ejemplo de coordinación interdepartamental.
- **Asesoramiento especializado a entidades públicas, fundaciones, universidades y ciudadanía**, con solicitudes procedentes no solo de Álava y Treviño, sino también de otras provincias,

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336701 ZAHARBERRIKUNTZA

Zerbitzuak prestigio teknikoa duela islatzen du horrek.

- **Lankidetzaren EHarekin**, praktiketan dauden ikasleak hartuta eta etorkizuneko profesionalak prestatzen lagunduta.

4. HELBURUA:

Ondarea ezagutzera eta zabaltzea

Ondarea eta kontserbaziorako jardunbide egokiak zabaltzea lehentasuneko ildo da 2025ean. Dibulgazio jarduerak sendoa izan da, presentzia digitala aktiboa, eta ekarpen nabarmena egin da prestakuntzan eta ezagutzaren transferentzian, argitalpenen eta biltzarretara joatearen bidez.

Hona hemen ekintzarik garrantzitsuenak:

- **Espedienteak kudeatzeko sistema eguneratzea.** Dokumentazio historikoaren digitalizazioan aurrera egin da, eta informazio teknikoaren iragarritasuna eta trazabilitatea hobetu dira.
- **Araba.eus webguneko eta sare sozialetako edukiak etengabe eguneratzea**, zerbitzuaren ikusgaitasun publikoa indartuz eta hainbat instituziorekin (IPCekin, esaterako) lankidetzan arituz dibulgazio kanpainetan.
- **Bisita gidatuak eta dibulgazio jardueren programa**, “Araban zaharberritzen dugu” programa, Esku Artean buletinaren bidalketa eta “Ondarearen astearrak” zikloa barne. Ekintza horiekin, kontserbazioa herritarrengana hurbildu, eta genero ikuspegia indartu da, datu bereizien eta eduki espezifikoaren bidez.
- **Prestakuntza eta komunikazio teknikoak.** Garrantzi berezia du Kontserbazioaren Ikerketa Plan Nazionalaren IV. Workshop-ak. Bertan, estatu-mailako profesionalak bildu ziren eta Araba ikerketa aplikatuaren erreferentzia gune gisa kokatu zen.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336701 RESTAURACIÓN

lo que refuerza el prestigio técnico del Servicio.

- **Colaboración con la EHU/UPV**, acogiendo alumnado en prácticas y contribuyendo a la formación de futuros profesionales.

OBJETIVO 4:

Conocer y divulgar el patrimonio

La difusión del patrimonio y de las buenas prácticas en conservación ha sido una línea prioritaria en 2025. Se cuenta con una actividad divulgativa sólida, presencia digital activa y una contribución destacada a la formación y transferencia de conocimiento mediante publicaciones y asistencia a congresos.

Las acciones más relevantes han sido:

- **Actualización del sistema de gestión de expedientes**, avanzando en la digitalización de documentación histórica y mejorando la accesibilidad y trazabilidad de la información técnica.
- **Actualización continua de contenidos en la web araba.eus y redes sociales**, reforzando la visibilidad pública del Servicio y colaborando con instituciones como el IPCE en campañas de divulgación.
- **Programa de visitas guiadas y actividades divulgativas**, incluyendo el programa Restauramos en Álava, el envío del boletín Esku Artean y el ciclo Martes de Patrimonio. Estas acciones han acercado la conservación a la ciudadanía y han reforzado la perspectiva de género mediante datos desagregados y contenidos específicos.
- **Formación y comunicaciones técnicas.** Destaca con especial relevancia la organización del IV Workshop del Plan Nacional de Investigación en Conservación, que reunió a profesionales de ámbito estatal y posicionó a Álava como espacio de referencia en investigación aplicada.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336701 ZAHARBERRIKUNTZA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336701 RESTAURACIÓN

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

1. HELBURUA:

**Arabako Lurralde Historikoaren ondarea
kontserbatzea eta zaharberritzea.**

1.1. ekintza. AFaren kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea

1.1.1. Egindako esku hartze kopurua:

315 objektu/pieza inguru.

1.1.2. Esku hartutako AFaren obren ehunekoa, jasotako eskaeren aldean.

Eskaeren % 80ren gainean esku hartu da.

1.2. ekintza. Gasteizko Gotzaindegiarekin hitzarmena, Eliza Katolikoaren ondasun artistikoak zaharberritzeko.

1.2.1. Egindako esku hartzeen kopurua:

3 esku hartze egin dira

1.2.2. Elizbarrutiko ondarearen kontserbazio egoerari buruzko aholkularitza txostenen kopurua:

19 txosten eman dira.

1.2.3. ekintza. Esku hartutako Elizbarrutiaren obren ehunekoa, jasotako eskaeren aldean:

Ehunekoa % 20 izan da.

1.3. ekintza. Ondarearen prebentziozko kontserbaziorako mantentze planak eta estrategiak garatzea.

1.3.1. Egindako mantentze planen ehunekoa, zaharberritzeko egindako esku hartze guztien aldean:

Esku hartzeen % 15ean mantentze planak
egin dira.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

OBJETIVO 1:

**Conservar y restaurar el patrimonio del Territorio
Histórico de Álava.**

Acción 1.1. Conservación y restauración de bienes culturales propiedad de la DFA

1.1.1. Número de intervenciones realizadas:

En torno a 315 objetos/piezas.

1.1.2. Porcentaje de obras de DFA sobre las que se ha intervenido, respecto a solicitudes recibidas.

Se ha intervenido sobre 80% de las
solicitudes.

Acción 1.2. Convenio con el Obispado de Vitoria para la restauración de bienes artísticos propiedad de la Iglesia Católica.

1.2.1. Número de intervenciones realizadas:

Se han realizado 3 intervenciones

1.2.2. Número de informes de asesoramiento sobre el estado de conservación del patrimonio de la Diócesis:

Se han emitido 19 informes.

1.2.3. Porcentaje de obras de la Diócesis sobre las que se ha intervenido, respecto a solicitudes recibidas:

El porcentaje ha sido de un 20%.

Acción 1.3. Desarrollo de estrategias y planes de mantenimiento dirigidos a la Conservación Preventiva del Patrimonio.

1.3.1. Porcentaje de Planes de mantenimiento elaborados, respecto al total de intervenciones de restauración realizadas:

En el 15% de las intervenciones se han
elaborado planes de mantenimiento.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336701 ZAHARBERRIKUNTZA

2. HELBURUA:

Ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea sustatzea.

2.1. ekintza. Arabako eta Trebiñuko enklabeen toki erakundeen arte ondasunak zaharberritzeko laguntzen deialdia.

2.1.1. Aurkeztutako eskaeren kopurua:

12 eskaera.

2.1.2. Adjudikatutako dirulaguntzen aurrekontuaren ehunekoa:

Adjudikatutako aurrekontuaren % 100

2.1.3 Genero ikuspegia txertatzen duten diruz lagundutako esku hartzeen ehunekoa

Esku hartzeen % 20

3. HELBURUA:

Arabako Lurralde Historikoko ondarea behar bezala kontserbatzeko eta zaharberritzeko aholkularitza tekniko eskaintzea.

3.1. ekintza. AFaren beste zerbitzuentzako barne aholkularitza.

3.1.1. Kontsulten/txostenen kopurua:

Guztira, 75.

3.1.2. Gehienez 30 eguneko epean egindako kontserbazio eta aholkularitza txostenen ehunekoa, txosten guztien aldean:

Txostenen % 90 epean egin dira.

3.2. ekintza. Kanpo aholkularitza: Gotzaindegia, fundazioak, erakunde publikoak, toki erakundeak, unibertsitateak, zaharberritze zentroak eta herritarrak, oro har.

3.2.1. Egindako txostenen kopurua:

60 txosten.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336701 RESTAURACIÓN

OBJETIVO 2:

Fomentar la conservación y restauración del patrimonio.

Acción 2.1. Convocatoria de ayudas para la restauración de bienes artísticos de entidades locales de Álava y enclave de Treviño.

2.1.1. Número de solicitud presentadas:

12 solicitudes.

2.1.2. Porcentaje de presupuesto de subvención adjudicado:

100% de presupuesto adjudicado

2.1.3 Porcentaje de intervenciones subvencionadas que incorporan la perspectiva de género

20 % de las intervenciones

OBJETIVO 3:

Ofrecer asesoramiento técnico para la adecuada conservación y restauración del patrimonio del Territorio Histórico de Álava.

Acción 3.1. Asesoramiento interno a Servicios de la DFA.

3.1.1. Número de consultas/informes:

Un total de 75

3.1.2. Porcentaje de informes de estado conservación-asesoramiento realizados en plazo máx. de 30 días, respecto al total de informes:

El porcentaje de informes en plazo ha sido del 90%.

Acción 3.2. Asesoramiento externo: Obispado, Fundaciones, Entidades públicas, Entidades Locales, Universidades, Centros de Restauración, y ciudadanía en general.

3.2.1. Número de informes realizados:

60 informes.

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA
Programa: 336701 ZAHARBERRIKUNTZA

3.2.2. *Gehienez 30 eguneko epean egindako kontserbazio eta aholkularitza txostenen ehunekoa, txosten guztien aldean:*

Txostenen % 100 epean egin dira.

3.2.3. *Kontserbazio eta zaharberritze arloko aholkularitza-eskaeren gehikuntza:*

% 15ko gehikuntza

4. HELBURUA:

Ondarea ezagutzea eta zabaltzea

4.1. ekintza. Zaharberritze espedienteak kudeatzeko sistema eguneratzea.

4.1.1. *Datu basean sartutako espediente berrien kopurua:*

250 espediente sartu dira.

4.2. ekintza. Zaharberrikuntza Zerbitzurako bisita gidatuen programa, Ondarearen Astearteak zikloa eta Zaharberritzen dugu Araban

4.2.1. *Antolatu ditugun edo parte hartu dugun dibulgazio jardueren kopurua:*

50 jarduera

4.2.2 *Emakumeei lotutako ondarea ikusarazten uzten duten jardueren kopurua*

Jarduera 1

4.2.3. *“Bisita gidatuak” programan parte hartzen dutenen gogobetetze maila (1etik 10era, 10 gehienez):*

10etik 9ko puntuazioa

4.3. ekintza. Argitalpen teknikoak

4.3.1. *Argitaratutako argitalpen teknikoen kopurua.*

2025an bat ere ez.

4.3.2. *Editatutako dibulgazio eskuorrien kopurua:*

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE
Programa: 336701 RESTAURACIÓN

3.2.2. *Porcentaje de informes de estado conservación-asesoramiento realizados en plazo máx. de 30 días, respecto al total de informes:*

El porcentaje de informes en plazo ha sido del 100%.

3.2.3. *Incremento de solicitudes de asesoramiento en conservación – restauración:*

Incremento de un 15%

OBJETIVO 4:

Conocer y divulgar el patrimonio

Acción 4.1. Actualización del sistema de gestión de expedientes de restauración.

4.1.1. *Número de expedientes nuevos incorporados a la base de datos:*

250 expedientes incorporados.

Acción 4.2. Programa de visitas guiadas a Restauración, ciclo Martes de Patrimonio, y Restauramos en Álava

4.2.1. *Número de actividades de divulgación organizadas o en las que hemos colaborado:*

50 actividades

4.2.2 *Número de actividades que visibilicen el patrimonio vinculado a mujeres*

1 actividad

4.2.3. *Grado de satisfacción de participantes en el programa “Visitas guiadas” (de 1 a 10 donde 10 es el máximo):*

Puntuación de 9 sobre 10

Acción 4.3. Publicaciones técnicas

4.3.1. *Número de publicaciones técnicas editadas.*

En 2025 ninguna.

4.3.2 *Número de folletos divulgativos editados:*

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 70 KULTURA ETA KIROLA

Programa: 336701 ZAHARBERRIKUNTZA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2025

Departamento: 70 CULTURA Y DEPORTE

Programa: 336701 RESTAURACIÓN

12 “Esku Artean” eta 6 orri didaktiko.

4.4. ekintza. Prestakuntza eta komunikazio teknikoak.

4.4.1. Zerbitzuak antolatutako jardunaldi teknikoen kopurua:

Jardunaldi 1

4.4.2. Prestakuntza praktikan dauden ikasleen kopurua:

2 lagun.

4.4.3. Praktikak egiten ari diren ikasleen gogobetetze maila. (1 batere gustura – 10 oso gustura)

Praktiketako ikasleen balorazio orokorra 10 puntutik 9,5koa izan da.

12 “Esku Artean” y 6 hojas didácticas.

Acción 4.4. Formación y comunicaciones técnicas.

4.4.1. Número de jornadas técnicas organizadas por el Servicio:

1 jornada

4.4.2. Número de alumnos/as en prácticas de formación:

2 personas.

4.4.3. Grado de satisfacción del alumnado en prácticas. (1 muy insatisfecho – 10 muy satisfecho).

La valoración global de las alumnas en prácticas ha sido de 9,5 sobre 10.